



Aldarrikapen ozena

Azaroaren 25a Andoainen eta Urnietan / 8-9

Azken txanpa

Euskaraldia amaitzeaz dela, ekitaldi-sorta iragarri dute Andoainen eta Urnietan / 6-7

Axel Garcia
agronomia-ingeniarria:
"Ez da gauza
bera jatea edo
elikatzea" / 2-3

Alberto Urkia Coriako
entrenatzailea:
"Realak bi Liga
irabazi zituenekoa
naiz, zale sutsua" / 2-3



HH/LH

HH/LHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 17AN 11:00ETAN

DBH

BATXILERGO/DBHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 17AN 11:00ETAN

Hitzordua beharrezkoa web orrian:
www.magaleikastetxea.eus
www.urnietakosalesiarrak.com



salestarrak
MAGALE · URNIETA

Mikel Arberas ANDOAIN

Axel Garcia Audicanak Kordoban egin zituen ikasketak. Hasiera batean, mendi-ingeniaritza ikasten hasi zen, baina ingeniaritza agronomora egin zuen jauzi. Umetatik eduki du harreman estua basoarekin, mendia-ekin eta baserriarekin, familia arabarra gaztagile ezagunak direla medio.

Beraz, osaba-izebek zerikusia eduki dute hartutako zenbait erabakitan...

Arabar lurraldearekin harreman estua eduki dut betidanik, familiatik eta artzantza zein basolanak oso gustuko ditudalako. Hortaz, sarritan lagundu dut Gereñuko (Araba) baserrian, eta asko ikasi dut. Bada, iragan abenduan, lana utzi eta abuztua bitarte osaba-izebekin lanean aritu nintzen; froga moduko bat izan zen, mundu hori benetan gustuko nuen jakiteko. Esanak esan, baserri-lana oso gustuko dut, baina Gereñuko ereduarekin bat egiten ez nuela ohartu nintzen, pertsona bakarrarentzat lotura eta lan handiegia zelako. Baserrian langile gehiago behar dira, nahitaez. Ondoren, Arabatik Ekuadorrera egin nuen jauzi.

Beraz, Gereñutik itsasoaz bestalde jauzi egin zenuen, lanari jarraiki...

Baserrian lanean hasi nintzen, Diputazioko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendaria nire profila egokitzen jo zuen Ekuadorren proiektu bat koordinatzeko. Aukera interesgarria iruditu zitzaidan, izan ere, 22 urterekin Brasilgo Minas Gerais estatuko Universidad Federal de Viçosa unibertsitatean lanean aritu nintzen, eta, bertan, fabelak ezagutu nituen, atzerriko bestelako nekazaritza modeloekin lotuta.



Axel Garcia Ekuadorren, bertakoiei baserri-lana erakusten. AXEL GARCIA

"Iraultza ahotik hasten da; ez da gauza bera jatea edo elikatzea"

AXEL GARCIA AUDICANA AGRONOMIA-INGENIARIA

Andoaindarra ez da geldirik egotekoa. Ekuadorreko nekazaritza eta abeltzaintza sustatzeko proiektuan murgilduta egon da hiru hilabetez eta asko du esateko

Hasiera batean, haien helburua nekazal eskola bat sortzea zen; Los Riosko (Ekuador) nekazariak formatzea izan zen lehen planteamendua. Proposamena Gipuzkoa Los Rios fundazioak egin zuen. Elkarte horren historia, 1948. urtean hasi zen, Pio XII Aita Santuak Gasteizko gotzainari eskaera bat egin zionean: "Mandatu bat egin behar dugu Ekuadorren. Ebangelizatzeaz gain, obra sozialak sustatu behar ditugu". Horrela hasi zen, Euskal Herriaren eta Ekuadorren arteko erlazioa.

Horiek horrela, hainbat urtetan, misioneroak bertako egoera soziala aldatzeari ekin zioten, baina, urteen poderioz, lanketa hori baztertzeko joan da. Horrek boteredunen ustelkeriaren eta prebrikazioaren gorakada ekarri zuen, aberatsak aberastuz eta langile xumeen egoera okertuz. Galderara itzuliz, nire lana, neurri batean, egoera hori aldatzen saiatzea eta bertakoei baliabideak eskaintzea izan zen, proiektu baten bitartez.

Aditza ematen duzu, bertakoak, sozialki egoera txarrean bizi direla eta horrelako makro-proiektuak egikaritzeko zailtasunak dituztela...

Bertaratu bezain laster, egin nuen lehenengo gauza bertako egoera sozio-politikoaz bustitzea izan zen, irakurri eta herritarrekin hitz eginez. Ohartu nintzen, hamarkada gutxitan, herrialdeak agintari militar eta lehendakari ugari eduki dituela, bakoitza bere pentsaerarekin eta politikekin. Horrek, herrialdearen ez-egonkortzea ekarri zuen, herritarren kalterako. Esate baterako, egun, nekazal lurrak, gutxi batzuen eskuetan daude; Ekuadorreko lehen astean, 13.000 hektareako lursail batean egon nintzen 3.000 langileekin. Eta



Hamargarren denboraldia abiatu da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KMO produktuez betetako otarra.





Andoaindarra lanean aritu zen guneetako bat, Ekuadorren. AXEL GARCIA

jabe bakarrarena zen. Lan oso zaila nuen aurretik. Herritarren egoera txarra izateaz gain, askok ez zekiten irakurtzen eta idazten. Hortaz, zer erakutsiko nien beren bizitza aldatzea ezinezkoa bazen? Planteamendua korporazio bat sortu eta gobernuarekin eta nekazari zein enpresekin komertzializazio-prozesua sustatzea izan zen. Horrez gain, dirua nola kudeatu erakutsi behar zaie, proiektuak aurrera egin dezan.

Aipatu duzu, iragan urteetan, eliza obra sozialetan murgilduta zegoela. Zer jazo da elizarekin?
Garaiko apaiz eta moja euskaldunek lan handia egiten zuten bertako egoera sozio-politikoan eragin eta herritarren bizi baldintza hobetzen saiatzeko. Kontua da, gaur egun, Ekuadorreko egitura politiko-ekonomikoan sartu dela Opus Dei, eliza katolikoaren adar ultra-konserbadorea, zeinak, erlazio estua duen elitismoarekin.

Horiek horrela, nekazariak maila baxukoak izanik, elizarekiko erlazio zuzen hori galdu dute, beren kalterako.

"EKONOMIKOKI AUKERA DUENAK BERTAKO PRODUKTUA KONTSUMITU BEHARKO LUKE"

Nik planteamendu bat egin eta azalpenak eman nizkien, baina horrek guztiak funtzionatu dezan, ezinbestekoa da botere handiko enpresa batek proiektu hori mugimenduan jartzea.

Denbora luzez aritu gara Ekuadorreko proiektuaz eta bertako egoeraz hitz egiten, baina zein da Euskal Herriko baserritarren eta produktuen egoera?

Kaskarra. Baserritarrei produktuen balio erreala ordainduko balitzaie, duintasunez bizi ahalko lukete. Baina, zoritxarrez, produktuak hainbat faktoreren menpe daude; adibidez, abeltzaintza intentsibo batean, kostu finkoak oso irregularrak dira, energiaren, uraren eta pentsuaren prezio aldaketaren arabera-koak baitira.

Baserritar gisa bizi direnak geroz eta gutxiago dira. Azken finean, lan handia eskatzen du

eta etekin ekonomikoa murrizta da. Gainera, mundu mailako egoerak prezioetan eragin nabaria du. Beraz, efizientzia eta efikaziaz hitz egin beharko genuke; ekoizpen kuantitatiboa baino, kualitatiboa beharko luke izan. Dena den, gauza bat argi esango dut, iraultza ahotik hasten da, ez da gauza bera jatea edo elikatzea.

Ekonomikoki aukera duenak bertako produktua kontsumitu beharko luke, baserritarrei babesa adierazi eta merezi duten garrantzia emateko; alderdi ekonomikoak ahalbidetzen duen bitartean.

Irakurleentzako galdera batekin amaitu nahiko nuke elkarriketa: Zer egingo dugu baserritarrak eta bertako produktuak desagertzean? Nork kudeatuko ditu paisaiak, larreak eta mendiak?



Axel Garcia andoaindarra agronomia-ingeniarria da. AXEL GARCIA

ANDOAIN

EUSKARALDIA

AZKEN FESTA

ABENDUAK 2, OSTIRALA
GOIKOPLAZA
18:00TAN HASITA
KARPA JARRIKO DUGU

18:00 MUFFINAK, ZOZKETAK

19:00 EGAPE DANTZA TALDEA ETA KLAAP DANTZA ESKOLA

20:00 LEBI ZEZEN SUZKOA

21:00 BEIETZ! ZELTIAR MUSIKA

Zatoz arratsalde gozoa elkarrekin igarotzera!



Beietz! musika taldeak "zeltik parranda" ekarriko du Arbizutik Andoainera. AIURRI

Euskaltzaleen hitzordua, ostiral honetan, Goikoplazan

Euskaraldia amaitzear da, eta Andoainen amaiera dotorea eman nahi diote. Eguraldiak lagunduz gero, festa betea izango da. Osagai askorekin: jana, musika, dantza... Arratsaldeko 18:00tan hasi eta 22:00ak bitarte festa nagusituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Egunak aurrera joan ahala antolaketa taldea ospakizuna osatzen eta aberasten ari da. Hotz egingo duela? Ez da arazo izango! Txokolate beroa eskainiko zaie bertaratzen direnei. Beraz, arratsaldeko 18:00tan hasita, askari edo merienda goxoarekin abiatuko da Euskaraldiaren azken ospakizuna. Euro batean, muffina eta txokolatea banatuko da. Eta, prezio berean, zozketa berezian parte hartzeko aukera. Euroko txartel bakoitzean zen-

baki bat agertuko da, eta zenbaki hori ondo gorde beharko da zozketa hasten denerako. Megafoniatik joango dira zenbakien berri ematen, eta irabazleak unean bertan sariaren bila pasa beharko du.

18:00TAN HASIKO DA OSPAKIZUNA, MUFFINAK ETA TXOKOLATE BEROA DASTATUZ

19:00tan hasita Goikoplazan jarritako karpa dantzan jarriko dute Egape Dantza Taldeak eta Klaap dantza eskolak. Euskaraldiaren koreografia bana sortu dute. Nork bere estiloan, eta biak ere maila handikoak. Bertaratzen denak dantzaz gozatu ahal izango du.

Zezen-suzkoarekin korrika saioa egin ondoren, Beietz! musika taldearekin gozatzeko aukera izango da. Gaueko 21:00tan hasiko da emanaldia. Zeltiar parranda iragarri dute.

Iluntze betea Goikoplazan



Gau Beltzan egin bezala, txokolatea banatuko da Goikoplazan. AIURRI

18:00 | Txokolate beroa eta muffinak Negu giroko egunak dira, egun hauetakoak. Arruti gozogileak egindako muffinak nahikoa ez eta, merienda edo askaria osatzeko txokolate beroa eskainiko du antolaketak. Guztia, Goikoplazako karpan.



Klaap dantza taldea. AIURRI

19:00 | Egape eta Klaap dantza taldeen saioa Euskal dantza garaikidean ekimen handia erakutsi dute urnietarrek, Edu Muruamendiarazen zuzendaritzapean. Erakustaldia eskainiko dute Andoainen. Eta, haiekin batera, Klaapeko 40tik gora gaztetxo.



Zezen suzkoa. AIURRI

20:00 | Zezen suzkoa, trikitilariak eta Beietz! taldea 20:00tik 21:00etara, mokadu bat jateko garaian, trikitilariak plaza ondoko tabernetan ibiliko dira. Zezen-suzkoa irteteko prest da, eguraldiaren arabera beti. Beietz! taldearekin amaituko da jaia.


IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Udazkena euskal eragileona izaten ari da

Euskararen aldeko borrokaren bueltan mugimendu antolatua berriro loratzen ari da, hilabete hauetan. Albiste on bat ilustratzeko lerrobura izan daiteke hori. Lerroburaak mamian dakarren errealitate hori Andoainen ikusten ari gara, Euskaraldiaren bueltan. Herrian zeresana eman duten ekimen ezberdinak antolatu dira azken asteotan, oharkabean igaro ez direnak.

Ez da, diodana, errealitate gordina ezkutatzeko pantaila modukoa. Euskararen erabilera nahi baino apalagoa da, eta hori aldarazteko input egokirik ez dugu topatzen. Euskaraldiak behar luke input horietakoa, baina Euskaraldiak ez du lehen edizioiko ilusio eta parte hartze hura berreskuratu. Datuei eta sentsazioei erreparatzea besterik ez dago. Aurreko edizioetan baina herrikide batzuk gutxiago gerturatu da izen-ematera eta txapa jasotzera. Bestalde, norbanakoen artean ez da garai batean bezalako parte hartze aktiboa somatzen. Izango da arrazoiak aztertu eta ondorioak ateratzeko denbora. Erreparatu beharko zaio apalaldi horri. Oraingoan ez da olatu erraldoirik agertu, baina ez da etsi behar. Haizea alde denerako prest egotea bezalakorik ez dago. Eta



Gau Beltza. AIURRI

horretan ari gara. Ezin dugulako begien aurrean dugun panorama horrekin tematu. Bestelako irakurketak egin behar dira. Horrexegatik diot euskaltzale aktiboen Euskaraldia izaten ari dela. Antolakuntza-taldean egonik, hurrengo urteei begira euskarari eusteko ahaleginari heldu nahi dion talde eragilea ikusten dudalako.

Udazken honetan egitasmo ezberdinak sustatu dira, eta etorkizunean etorriko dira berriak. Izango denari heltzeko garaia iritsiko da, baina bitartean erreparatu diezaiozun aurreko hilabeteetako jardunari. Gau Beltza nabarmendu behar dugu, denen aurretik. Atzerriko kulturatik datorren ospakizuna zen Andoainen, 2022a iritsi den arte.

Ospakizun horretan euskal kutsua duen Gau Beltza erdigunean jartzea lortu da. Lehen urtean, gainera. 2023an herrikide askok ez du gutxiago espero, eta Gau Beltzaren antolaketan errepikatu beharko dugu. Aurtengoan Halloween ospakizunetik Gau Beltzarako aldaketa hasi da. Etorkizunean aldaketa hori eraldaketa bilakatuko da. Eta hori egiteko talde eragile bat behar-beharrezkoa da. Zorionez, Andoainen hilabete hauetan ikusitakoaren arabera, bada talde antolatu modura lanean aritzeko oinarri sendoa. Eskarmentua, pasioa eta lanerako gogoia uztartzen duena. Ezin ahaztu tokiko erakundea, eta aurtun Andoaingo Udalak izan duen lankidetzarako portaera on hori behar-beharrezkoa izango dugu etorkizunean ere.

Euskaraldiaren bueltan antolatutako bokata-afaria, Zasan ikusi dugun boluntariora lana, ostiral honetarako antolatzen ari garen festa... tira eta tunba aritzeko euskaltzale eragileak martxan jarri gara. Kemen horri eutsiz gero, hurbilduko zaizkigu herrikideak euskararen aldeko borrokan. Baikor begiratzen diot etorkizun hurbilari.



Kantazaun taldea, aurreko irteera batean. AIURRI

Euskaraldia eta Euskararen eguna kateatuko dituzte Urnietan

Tiktokaldia, pailazoen emanaldia eta kantu kalejira, abenduaren 2an eta 3an

Erredakzioa URNIETA

Euskaraldiaren hirugarren edizio amaitzean, Euskararen Eguna hartuko dio ariketa sozialari hizkuntzaren lekukoa bihar munean. Hala, zenbait hitzordu izango dira herrian bertan, egutegian gorri borobildutako bi egun horiei aitortza egiteko. Alde batetik, Antxo eta Pantxa pailazoen "Gurekin konektatu" emanaldiaz gozatzeko aukera izango da arratsaldeko 18:00etan kiroldegian. Eguraldi txarra egiten badu, aldiz, kiroldegi barruko 5. boxean izango da ikus-kizuna. Bestalde, abenduaren

3an, kalejira ibiltaria izango da herrian barrena Kantazaunen eskutik. Eguerdiko 12:00etan irtengo dira San Joan plazatik eta ondorengo lekuetan geldituko dira: Etxeberri plazan, Zaldungo plazan eta Zubitxo plazan. Euskaraldiarekin batera amaitu da, ariketa sozialak irau bitartean, Urnietan martxan ipinitako ekimenean parte hartzeko aukera: Tik Tokaldia. Aurki iragarriko dute, zozka bidez aukeratutako bideo irabazlea; euskarari eta euskal kulturari zuzenki lotutako saria eramango du etxera.



Euskaraldiaren berri izaten ari zara, irakurle, **Aiurri.eus** webgunean

Deialdiak, argazkiak, bideoak, albisteak.

BIZI EUSKARALDIA!

www.aiurri.eus

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN EUSKARAREN EGUNA ETA EUSKARALDIAREN AMAIERA OSPATZEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdere eta irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA 2022ko abenduak 14 00:00 h

euskaraz izango Gara

DANOBATGROUP / DANOBAT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUCE



Gora Kaletxiki Banda eta herriko sortzaileen senitartekoak, kontzertuaren amaieran elkarrekin ateratako argazkian. AIURRI

Herriko sortzaileei gorazarre

Musika kultur ondare bat da, eta hura biziberritzeko emanaldi zirraragarria antolatu zuen Gora Kaletxiki Bandak. Joxe Mari Oiartzabal zuzendariak maisuki gidatu zuen kontzertua, Santa Krutz elizan egin zutena

Xabier Lasa ANDOAIN

Hiru pieza berri interpretatu zituzten larunbatean. Joxe Mari Oiartzabal zuzendariak berak sortutakoak, Santa Krutz elizan bertan entzun ahal izan ziren lehenengo aldiz *Gure oroimenean zaudete*, *Andoaingo kontsejupean* eta *Xexili blues* kantuak. Bestalde, Alberto Agirre Musika Bandako zuzendari ohiak bere garaian eratu zuen *Gora Elcano* obra lehen aldiz jo zuen zuzenean Gora Kaletxiki Bandak.

Esan bezala, herriko sortzaileen piezekin osatu zuen Gora Kaletxiki Bandak erreperitorioa:

- *Gure oroimenean zaudete* (Joxe Mari Oiartzabal Beloki).
- *Larramendi* (Eulogio Saldias Urdanpilleta).
- *Gora Elcano* (Alberto Agirre Azurza).
- *Andoain* (Luis Fraca Royo).
- *Goiburu* (Jose Sainz Garmendia).
- *Barria* (Joxe Mari Huizi San Juan).

- *Andoaingo kontsejupean* (Joxe Mari Oiartzabal Beloki).
- *Lau haizetara* (Imanol Lartza-bal).
- *Xexili blues* (Joxe Mari Oiartzabal; letra, Joxeramon Berrondo).

Musikaren historian garrantzia handikoak izan diren sortzaileak gogoan hartu zituzten, eta aitorza horren pergamino bana opari modura jaso zuten musikari handi horien ondorengoei.

Santa Zeziliako bideoak Aiurri.eus webgunean



Udal Musika Eskolako Bandaren eta abesbatzaren kontzertua



Gora Kaletxiki Bandaren kontzertua

Gorazarre herriko konposatzaileei



Miren, Tere, Angeli eta Eugeni Lopez de Munain eta Mari Karmen Txapartegi, Goiburu auzoko auzokideak ordezkatzuz. Jose Sainzen "Goiburu" kanta auzo horri eskainia baita. AIURRI



Nerea Saldias, Maria Lurdes Uriarte, Ane Huizi eta Amaia Diaz de Monasterio Eulogio Saldiasen senitartekoak dira. AIURRI



Uxue Aranburu, Luxio Aranburu Bandako kidearen alaba bertaratu zen kontzertura. AIURRI



Gotzon eta Garbiñe Huizi, Joxe Mari Huiziren seme-alabak, Bandako kide Jexux Ibañez "Txupi" eta Joxe Mari Oiartzabal zuzendariarekin batera. AIURRI



Lainez alkateak Fracaren pergaminoa jaso zuen, haren familiari helarazteko. AIURRI

IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Injustizia Gora Kaletxiki Bandarekin

Gau majikoa, kasik errepikaezina, izan zen Gora Kaletxiki Banda aurreko larunbatean Santa Krutz ermitan oparitu ziguna. Joxe Mari Oiartzabal maisuak zuzenduta, errepaso bikaina, profesionala eman zioten Andoainen dauzkagun –maizegi, ahaztuta dauzkagun–, musika-ondareari zein ibilbide oparoko konposatzaileei. Doinuak oinarri izanda, eta aurkezpentxo jakingarriez erantsita, ezin liteke irakaspen pedagogiko distiratsuagorik egin. Konposatzaileen senideekin egindako aitortza ere, giza-

legetasunaren lezio edertzat jo beharko genuke. Nolanahi ere, ermitatik pozez zorutzen ez, baizik eta tristezia puntu batekin irten ginen zenbaitzuk. Bi arrazoi nagusiki, horretarako. Ikuskizunak solemnitare handiagoa merezi izana, lehenbizikoa. Andoaingo historia, ondarea, musika, musikariak maite dituen publiko musikazaleak ez baitzuen erantzun espero zitekeen adina; eserleku ugari ikusi ziren hutsik (kasik meza normal bat zirudien, eta barka diezadala Iñaki Zabaleta erretore jatorrak, konparaketa

mingarri samarra hautatu badut...). Banda txaranga ere badelako, gutxiespena ote dago erantzun eskasaren atzean? Tristeziarako bigarren arrazoia andoaindertasuna sustatzeko hainbesteko indarra daukan ekitaldi erraldoia, Udalak, berea balitz bezala besarkatu ez izanak eragindakoa da. Besarkatu diot, bitarteko publikoekin babestuz, zabalduz. Herritarrok denon artean ordaintzen dugun Basteroko auditorioa eskainiz, edota, kobertura publizitarioa emanez (esate baterako, soilik Bastero

Kultugunean antolatzen diren ekitaldiak bildu eta gero milaka buzoietan banatzen duen argitalpenarekin). Gora Kaletxiki Bandaren afera aipatu, eta udalaren aldetik jasaten duen tratua erekin, hots, diru irabazirako sortutako enpresa baten antzerako tratua izatearekin egiten dugu topo: ez denez hitzarmen bidez diruz lagundutako herri elkarteak, ezin Basteroko instalakuntzak doan erabili. Egiazki ordainduak dira, bai, Bandak egiten dituen zenbait aktuzio. Baina egia ere bada, horiek ez direla bertako partaideak aberastu daitezen, baizik eta hainbeste kidez osatutako musika

taldearen instrumentuen mantenua eta gainerako gastuak ordaintzeko. Hori guztia da Gora Kaletxiki Banda. Baina halaber, diru irabazi asmorik gabeko herriko kultur eragilea ere bada! Ia 20 urte darama bere ekarpen aberatsa eginez Andoaingo kulturari, bere musika ondareari, kale bizitzari, auzo-jaiari, kultur elkarten dinamikei... Bere aktuziorik gehien-gehienetan, andoaindertasunaren sentimendua zabaltzeaz gain euskara eta euskal kultura ardatz izanik! Horrexegatik uste dut arrazoiak badaudela Gora Kaletxiki Bandarekin injustizia gertatzen ari dela adierazteko.



Zumea plazatik abiatu zen manifestazioa, azaroaren 25ean, Goikoplazarako bidean. AIURRI

Manifestazioa eta aitortza, azaroaren 25ean

Andoingo Asanblada Feministak dozenaka lagun elkartu zituen, manifestazioan. Indarkeria matxistak eragindako biktimak gogoan, omenaldi-ekitaldia antolatu zuen Andoingo Udalak Goikoplazan

Erredakzioa ANDOAIN

Udal erakundeak, programazio aberatsaren bidez, eta Andoingo Asanblada feministak, sensibilizazio-lana eginez, azaroaren 25a aldarrikapenez beteriko eguna bilakatu zuten. Bereziki deigarria izan zen Andoingo Asanblada Feministak goizean goizetik gauzatu zuen ekintza. Zumea plazan, Kale Nagusian, Plaza Morean eta Goikoplazan odoleztatuta ageri zen emakumezko panpin zuri bana jarri zuen. Eta panpin bakoitzean "Justizia" zioen afitxa. Deigarria izan zen eskolara edo lanera zihoan oinezkoarentzat. Egun osoan, ikusgai izan ziren. Manifestazioa lau puntu horietatik igaro zen, gainera.

Manifestazioa bukatu eta minutu gutxira, indarkeria matxistak eragindako biktimak gogoan hartzeko omenaldi-ekitaldia antolatu zuen Andoingo Udalak. Isiltasunean, errespetuzko une hori txalo zaparradarekin amaitu zen.



Asanblada feministako kideak. AIURRI

Andoingo Asanblada Feminista

"Gora borroka feminista!" izan zen manifestazioan gehien entzun zen leloa. Ekitaldiaren hasierako irakurtaldian beste lelo batzuk zabaldu zituzten adierazpena irakurri zuten kideek. Honako hauexek: "Beldurra eta Kontrolaren aurrean, Justizia Feminista!", "Antolakuntza feministan boteretu gaitezen!", "Sistema honetan elkar zaintzea erradikala delako!", "Indarkeria matxistaren aurrean, Autodefentsa Feminista!"



AIURRI

Adierazpena, Udaletxean

Andoingo Udalak zuzeneko emankizuna egin zuen Udaletxeko pleno aretotik. Ordezkaritza duten lau alderdietako ordezkariak parte hartu zuten adierazpenaren irakurtaldian, Andoingo alkatearekin batera. Ezker eskuin, Marijose Izagirre (EAJ-PNV), Maider Lainez alkatea, Petri Romero (PSE-EE), Tere Santana (Podemos Ahal Dugu) eta Garazi Usandizaga (EH Bildu).



AIURRI

Omenaldi-ekitaldia, Goikoplazan

Andoingo Asanblada Feministaren manifestazioa amaitu eta minutu gutxira, hasiera eman zion Udalak indarkeria matxista pairatu dutenekiko omenaldi-ekitaldiari. Isilean eta pankartearen atzean izan ziren ordezkariak duten alderdi politiko guztiak. Eta, haien aurrean, ekitaldira hurbildutako hainbat herritar. Biktimen omenezko txalo zaparradarekin amaitu zen ekitaldia.



AIURRI



Udal ordezkariak eta herrikideak elkartu ziren San Juan plazan, aurreko ostiralean. AIURRI

Emakumeenganako indarkeriaren kontra

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen, aurreko ostiralean. Minutuko isilunean erasotutako emakumeak gogoan hartu zituzten. Txalo zaparradarekin amaitu zen Udalak antolatu zuen ekitaldia

Erredakzioa URNIETA

Hamaika mobilizazio, aldarrikapen izan ziren joan den ostiralean Euskal Herrian, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Urnietan, elkarretaratzea izan zen San Juan plazan, Urnietako Udalak deituta. Bertara, udaleko ordezkariak nahiz zenbait herritar gerturatu ziren, baita Bagara herriko talde feminista ere, deialdiarekin bat. Hala, puntu moredun pankarta zabaldu eta adierazpen instituzionala irakurri zen, “espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera”. Hari horri tiraka, etorkizunari begirako zenbait promiso zehaztu zituen Urnietako Udalak: besteak beste, beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin, baita talde feministekin nahiz gizarte eragileekin ere.



Bagara taldearen pankarta. AIURRI

Bagara Urnietako talde feminista

Azaroaren 25eko elkarretaratzean, pankarta berria batu zitzaion Urnietako Udalaren puntu moreari: “Urnietan ere antolatuta gaude”, zioen, hiruzpalau herritarren eskuetan zintzilikatzen zen aldarrikapenak. Orain gutxi martxa hartu berri duen herriko talde feminista dago aldarrikapen horren atzean, Bagara izenekoa. Hori horrela, ordezkapen instituzionalaz gain, herri eragileen presentzia ere izan zen azaroaren 25ean, San Juan plazan Udalak deitu zuen mobilizazioan.

Eudelen proposamena, tokian tokiko adierazpenen oinarrian

Espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzea izan da aurtengo aldarrikapenetakoa

Erredakzioa URNIETA

“Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera”. Norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea izan da aurtengo xedea, Eudelek sustatu eta hamarnaka udalek beretzat hartu duten adierazpenean.

Adierazpena hainbat puntutan banatuta dago. Honakoak:

1. Era sakonean ezagutzea emakumei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.
2. Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.
3. Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatoek indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.
4. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokio-

nez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezen.

5. Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.

"Gazteengan begirada geldia eta analitikoa behar du"

Andoaingo adierazpenean nabardura berriak egin zituzten, eta gazteengan begirada jartzeko ohartarazpena egin zuten: "Indarkeria matxistaren errealitatea konplexua eta kontraesankorra da oro har, baina gazteengan begirada geldia eta analitikoa behar du. Aurtun, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren egitarauaren helburua gazteen eremuko indarkeria matxista eta aurrea hartze politikak aztertzea izan da". Ildo horretan, Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak solasaldi interesgarria antolatu zuen Basteron. Azaroaren 22an, “Nerabetasunean ematen diren indarkeria matxistak eta indarkeria sexualak, ikusi, aurre hartu, esku hartu” izenburupean, aditu taldea hizlari aritu zen. Solasaldiari buruzko kronika irakurgai dago Aiurri hamaboskarian.



Urnietako
udala

POSTONTZIA

ANDOINGO BIZILAGUN ETA AMA KANDIDA ETORBIDEKO ETORKIZUNeko JABEAK ANDOAIN

Ama Kandidako etorkizuneko jabeak

Hurrengo lerroetan, Andoaingo ehunka bizilagunok Ama Kandida etorbideko etxebizitza berriak direla eta bizi dugun egoera laburbiltzen saiatuko gara. Proiektu hau berritzaile gisa iragarri zen udalerrian, bertako etorbide nagusietako bati irudi berritua emango ziona: dendak, etxebizitzak, pasealekua, etab. Ama Kandida etorbideak urteak darama abandonu egoeran.

Dena 2019ko udan hasi zen, proiektua argitaratu eta Urumea Berrik proiektua aurkeztu zuenean, lehen fasean aurreikusitako etxebizitzak salgai ipiniz. Eraikuntza, esan zigutenez, 2023an amaituko zen. Askok une hartan jada ordaindu genuen seinalea, baita etxebizitza-plana kontratatu ere. Hiru urte horiek, etxebizitzak entregatu arte, iraun ahal izateko kalkulak egin genituen, alokairuaren kostua kalkulatu, edo guraso edo aitaginarrebekin bizi behar zen denbora aurreikusiz.

2021. urtearen amaieran, lanak hasi gabe zeudela ikusita, hainbat eroslek bat egitea erabaki genuen, gure esperientzia partekatzeko, gertatzen ari zena ulertzen saiatzeko eta horren inguruko ekintzak burutu ahal izateko.

Kaltetuon, Urumea Berriko eta Andoaingo Udaleko ordezkarien arteko bilera bat burutu zen orduan, non arazoak planteatu ziren, eta konpromiso batzuk hartu ziren. Konpromiso esanguratsuenak, obra-baimena azkartzea eta lehen eraikinaren obra 2024ko udan amaitzea izan ziren. Hori lortzeko, Jose Luis Verdasco, hirigintzako zinegotziak, bitarteko guztiak jarriko zituela eta bigarren arkitekto baten kontratazioa berehalakoa izango zela ziurtatu zigun, atzerapenaren



Ama Kandida etorbidea, aste honetan ateratako argazkian. AIURRI

arrazoi nagusia, adierazi zuenez, arkitektoak jasaten duen lan-karga handia zelako.

Gaur, bilera hartatik urtebete baino gehiago igaro denean, ez dira beharrezko baliabideak ipini eta zalantza handiak ditugu eraikuntza 2025a baino lehen amaituko ote den.

Ez dakigu bigarren arkitekto bat ez kontratatzearen arrazoia zein den, eta ez dakigu zergatik ez zaion lehentasuna eman proiektu honi. Era berean, ezin dugu ulertu nola lehenetsi diren beste proiektu batzuk, haurrentzako ur-jolasena esaterako. Udazken betean egin zen, datorren uda arte estreinatuko ez den arren. Agian hauteskundeak uda aurretik direlako? Ez dakigu...

Izan ere, gaur egun, ehunka herritar hitzartutako etxerik gabe eta etxea izateko data zehatzik gabe jarraitzen dugu.

Testu hau lehen eraikineko etxebizitzaren jabe izango garenek idatzi dugu, baina ezin dugu ahaztu atzerapen horiek pertsona gehiagorengan eragozpenak eragiten ari direla. Batez ere, nabarmendu behar dugu bizitoki zuten eraikina eraisteko haien etxetatik atera zituzten familien egoera.

Azken batean, ehunka kaltetu gara, testuaren hasieran adierazi dugun bezala, bakoitza bere egoerarekin. Kasu horietako batzuk aipatzearren, familia batzuk alokairuak ordaintzen ari dira, aurrekontuak doitzen, alokairuaren eskaintza, denok dakigun bezala, oso urria baita udalerrian. Familia batzuk gurasoekin edo aitaginarrebekin bizi dira epe mugagabea, etxebizitzak entregatzeko data behin eta berriz atzeratzen baita. Etxebizitza horietako bat premiagatik erosi duen familia baten kasua ere ezagutzen dugu; izan ere, beharizan bereziak dituen senitarteko bat dute ardurapean, eta behar horiek garatu ahal izateko gela bereziak egokitu behar dituzte. Beste kasu batzuetan, berriz, etxebizitza-plan bat dugu kontratatua, eta horren epea amaitu egiten da. Beraz, diru asko gal dezakegu, etxebizitzak entregatzeko atzerapenak direla eta.

Laburbilduz, Andoaingo Udaleri eskatzen diogu busti dadila, ekintzekin, data zehatzekin eta epeak behin betiko betetzeko konpromisoarekin; oso nekatuta baikaude epeak behin eta berriz luzatzeaz, eraginkortasun ezaz eta neurriz gaineko geldotasunaz.

POSTONTZIA

IPAR HAIZEA ANDOAIN

Alarma Andoainen

Pasa den ostiralean Berria egunkariak jakinarazi zuen erraustegiaren dioxinaren kutsadura Andoaingo oilategietako arrautzetan antzeman zituztela. 2019tik ToxicoWatch Herberetako fundazioa neurketak gauzatzen ari da, eta, hasi zirenetik, gaur arte, dioxina kopurua laukoiztu egin dela frogatu dute. Izan ere Andoaini eragiten dioten ohiko haize boladek erraustegiaren ingurutik etortzen dira. Hori izan zen Ipar Haizea plataformari izena jartzeko arrazoia, eta, zoritxarrez, erraustegia martxan jarri eta bi urtetara frogatuta gelditu da dioxina toxikoak gureraino iritsi direla. Andoain inguruko goroldioetan dioxina maila hogeitaz handitu dela ere frogatu dute. Honen aurrean, Ipar Haizea plataformatik, gure kezka eta larritasuna nabarmendu nahi dugu. Andoain erraustegiaren kutsaduraren jo puntuan dago. Kezkagarria zaigu ere, sustantzien artean “PFAS” delakoak ere agertu direla. Sustantzia hauek berriak dira, legediak ez ditu kontenplatzen eta zientifikoki oraintxe kezka handia dago hauen inguruan. Maila handian topatu dituzte goroldioetan eta sedimentuetan.

Jakinarazi nahi dugu ikerketa hauen emaitzetan sakontzeko hurrengo egunetan hitzaldi informatiboa antolatuko dugula eta ohiko bideen bidez informatuko dugula.

GORA ETA BEHERA



Ehunka lagun berandu lanera edo eskolara, astelehen goizean

Eta, ondorioz, erabiltzaileen kexa ez zen oharkabea pasa. Andoain eta Irun arteko bidaia etenda, eta alternatibarik gabe, kaltetuak ehunka izan ziren.



Aurreko larunbatean hasi ziren bus zerbitzua eskaintzen. Astelehenean ez zuten zerbitzurik jarri. AIURRI





Alain Yaben, Axier Mendizabal, Neide Garmendia eta Mari Cayetano. IRUNBERRI

Irunberriko pala txapelketa, lagunarteko giroan

PALA Aurreko larunbatean ligaxka jokatu ostean, finalak larunbat honetan jokatu dira

Erredakzioa ANDOAIN

Irunberri kultur elkarte urteurrenean murgilduta dago, eta ostegunetik igandera bitarte hitzordu ezberdinak antolatu dituzte. Horietako bat pala txapelketa mistoa izan da. Aurreko larunbatean hamar bikoteren arteko ligaxka jokatu ostean, ohorezko partidak larunbat ho-

netan jokatu dira. Arrate pilotalekuan elkartuko dira sailkapenean aurrera egin duten lau bikoteak.

Abenduak 3, larunbata. Arrate

10:00 | 3-4. postuak: Oihana-Ander / Eukén-Ainhize. 10:30 | Finala: Xabi-Ane / Irati-Andoni.



Jon Arregi, Xare Hernandez, Ion Beloki eta Eneritz Arruti. IRUNBERRI



Kadete mailako partida. UKE

ESKUBALOIA Iritsiko dira jardunaldi hobeak, UK Erentzat

Kadete mailako bi taldeek galdu zuten, aurreko asteburuko jardunaldian. Urnieta Quel Abogados emakumezkoen senior taldeak ere ezin izan zituen bi puntuak lortu, Lezoko Muntarpe taldearen aurkako partidari. Lezokoek nahiko bideratuta zuten partida, baina neurketako azken minutuetan, golen aldea murriztea lortu zen (26-24). Larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan hasita, Ereintza taldearen aurka ariko dira etxean. 11 puntu ditu Ereintzak, eta Urnietak 10. Lehiakorra izango da.

Urnietak Artola Harategia gizonen senior taldeak galdu egin zuen Urdanetaren aurka (29-23), larunbat arratsaldean, Loio jokatuak partidari. Asteburu honetan etxean ariko dira, Pulpo zumaiarren aurka.

Leizaran Ernio

9 jardunaldi eta gero, Lurraldeko 1. mailako ligan bigarren postuan dago Andoaingo taldea. Aurrekoan garaipena lortu zuen Txingudiren aurka (33-26).



Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak, aurreko asteburuan Andoaingoan. BURUNTZALDEA IKT

Allurralde kiroldegia igerilarien topaleku bilakatu zen

IGERIKETA Herrikideen aurrean aritu ziren lehian Laida Guerrero eta Ane Meyer andoaindarrak

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko larunbatean, Neguko Ligako 3. jardunaldia ospatu zen Andoaingo Allurralde kiroldegian. Beterri-Buruntzako eta beste eskualdeetako igerilarien topaleku bilakatu zen. Bertan parte hartzen izan ziren Buruntzaldea IKT taldeko infantil, junior eta helduen mailako igerilariak. Arrazoi ezberdinak direla medio, hainbat igerilarik ezin izan zuten parte hartu, baina, hala ere, taldeko hamaika partaide aritu ziren igerilekuan: Laida Guerrero, Ane Meyer, Irati Etxeberria, Nora Miguelez, Amaia Iparra-girre, Unai Somovilla, Iker Gorostegui, Mayi Gorostegui, Garazi Etxeberria, Miren Sarobe eta Alba Escribano.

Pausoz pauso, aurrera

Pozarren daude Buruntzaldea IKT klubean: "Pausoz pauso, aurrera goaz denboraldiarekin.

Pozik gaude, pixkanaka entrenamendu gogorrek emandako emaitzak ikusten ari baikara; eta lanean jarraituko dugu! Hurrengo jardunaldia abenduaren 17an izango da Hernaniko igerilekuan".

Bukatzeko, eskertza adierazi nahi diete lehiaketan bolondres gisa laguntzen egon ziren klubeko kide guztiei: "Azucena Rodriguez, Ana Bravo, Kepa Etxeberria, Izaro Audikana, Maximiliano Meyer, Ainhoa Cencillo, Aitziber Berasategi, Karmen Herrero, Lide Sañudo eta Borja Apeztegia. Mila esker denoi, zuek gabe ezinezkoa litzateke!".

Etxeberria eta Zudaire

Datorren asteburuan "XIX Trofeo Internacional Castalia Castellon" sariketan izango dira klubeko bi igerilariak, Gipuzkoako selekzioarekin.



ABENDUAK 3 LARUNBATA

16:30 ETIK AURRERA




160 PARTIDUA 35 TANTO


URRUTIA II • LARRAÑAGA
ZALDUA II • ZALDUA


BINA KAKO PARTIDUA 40 TANTO


GOIKOETXEA V • BARRENETXEA IV
ALDABE • AZPIROZ

3. PARTIDUA 40 TANTO

ANSA II • LABAKA
SEGUROLA • MARTIRENA

Andoni Urbistondo URNIETA

Agerikoa da Alberto Urkiaren hizkeran Cáceres aldeko hotsoinua. Euskal Herrian jaio zen, eta Andoainen egin bere bizitzako lehen hilabeteak. Patuak, baina, Cáceres aldera eraman zituen bera eta bere familia, Alberto oso-oso gaztea zenean. Han egin du bizitza orduz geroztik, futbolari lotuta. 14.000 biztanle dituen Coria herrian, hain zuzen ere. Herri hartako futbol taldeko jokalaririk izan zen luze, bigarren entrenatzaile ondoren zazpi urtez, eta pasa den udan taldeko aginte-makila eman zioten klubeko arduradunek. Kopako lehen kanporaketa gainditu zuen Coriak, eta bonboak Albertok bere ametsetan irudikatutako 'gordo'-a, sari nagusia opartu zion: Realak aurreratu.

Zergatik, bada? "Bizitza osoa daramat Corian, baina lotura estua dut Andoain eta Irunekin. Sendia daukat han, eta udaro joaten naiz egun batzuk pasatzera. Pisua ere badaukagu Andoainen. Donostiara, Getariara eta beste ere sarri joaten gara". Gipuzkoatik 600 kilometrora bizi da, baina jaiotzetik jaso zuen zaletasuna bizi-bizirik mantentzen du, ia mende erdi pasa bada ere. Realeko zale sutsua da Alberto: "Bihotzean daramat talde txuri-urdina. Nire aitak eta nire anai nagusiek sartu zidaten arra, eta hori ez da inoiz ahazten. Bi Liga irabazi zitueneko belaunaldikoa naiz, 1975ean jaioa. Ume bat nintzen Realak bi Liga haiek irabazi zituenean, eta hori betirako dago gordea nire oroitzapenean. Batez ere Gijongo Liga hura, eta Jesus Mari Zamoraren gola".

Harro dio ez daukala bigarren talderik, bera Realekoa dela. "Beno, Realak eta Coriakoa ere", dio barrez. Euskal Herrira etorritzen denean Zubietara joateko ohitura handia dauka Urkiak, Realaren entrenamenduak ikustera. "Niretzat Aritz Elustondo edo Martin Zubimendi bezalako jokalariek entrenatzen ikustea gozamen da. Ume txiki baten pare joaten naiz, Olentzerok opariak ekartzen dizkionean bezala". Zer esan Imanol entrenatzaileari buruz, Urkiak gurtuta baitauka. Idolo handia da berarentzat, eta hilaren 21eko neurketan, Oriokoa hurbildu eta bostekoa ematen dionean nerbioak jota egongo dela onar-

"Realak bi Liga irabazi zituenekoa naiz, zale sutsua"

ALBERTO URKIA CLUB DEPORTIVO CORIA TALDEKO ENTRENATZAILEA

Lana eta burua Cáceres iparraldean ditu Alberto Urkiak, baina bihotza eta arima Andoainen, udaro etortzen baita senideak bisitatzen



Donostian jaio zen, duela 47 urte, baina hilabete gutxi batzuk zituela Andoaindik Coriara joan zen bere familiarekin. AIURRI

tzen du: "Malkorik ez isurtzea espero dut, giza legez jokatzeko".

Oriotarraren iritzia eskatu diogu Albertori: "Ikaragarria da egin duena, egiten ari dena. Izen handirik gabeko entrenatzailea zen, eta lan handia egin behar izan du sona hartzeko. Gauza bereziak transmititzen ditu, jokalarien oso gainean egoten da, eta nabari da jokalariek bere proiektuarekin bat egiten dutela; oso inplikaturik sumatzen zaie". Urkia irailean egon zen azkeneko aldiz Zubietan, Realaren lan saio bat ikusten: "Gozatu egin nuen, ze joko landua egiten zuten, beti baloia zelaian barrena erabiliz. Atletico Madril aurka jokatu behar zuen Realak, eta pentsatu nuen niretzat: 'Ez dakit zergatik ari diren lan hori egiten, Athleticok ez dielako utziko euren joko moldea egiten'. Bana bukatu zen partida hura, baina erakustaldia eman zuen Realak, entrenatu bezala jokatzeko dutelako".

"Realak nahi nuen zozketan"

Kopako bigarren kanporaketako aurkaria erabaki zen egunean ikusmin handia izan zen Club Deportivo Coria taldearen egoitzan. Urkiak garbi esan zien kide guztiei, berak Realak egokitzea nahi zuela: "Hemengo jendearentzat erakargarriagoa zen akaso Atletico Madril taldea, diru gehiago biltzeko aukera izango genuelakoan. Klubeko presidentek, ordea, nahiago zuen Realak edo Athletic egokitzea, Cáceres iparraldean ez daukagutako talde horiek ikusteko aukera askorik. Madrilera, Sevillara joan gaitezke egun pasa, bertako taldeak ikustera, baina Realak edo Athletic ikustera joatea zailagoa da". Bonboa jiraka hasi zen, eta Lehen Mailako ia talde guztiak atera ziren. Coriak kideen artean etsipena nagusitzen hasia zen, Bigarren Mailako talderen bat egokituko zitzaielakoan, baina ttak!, Coria Realarekin parekatu zuen zozketak: "Realak ikusi nuenean besoak jaso nituen oharkabea, poz-pozik. Ezin izan nuen disimulatu", dio Urkiak.

"BIHOTZEAN DARAMAT TALDE TXURI-URDINA. NIRE AITAK ETA ANAIEK SARTU ZIDATEN ARRA"



Coriako jokalariek estadiokoan jarraitu zuten Kopako zozketa. CORIA



Coria jendez gainezka egoten da, Ligan. Kopan bete-betea egongo da. CORIA

Eta zer esan ote zion jendeak, bere sentimenduak hain garbi erakutsi osten? "Ezagutzen naute, badakite zein den nire talde kuttuna. Corian jende dezentte dago sustraiak Gipuzkoa aldean dituenak, eta bada zale txuri-urdinik hemendik". Zale-tasunak zaletasun, Urkiak garbi du non egiten duen lan, eta noski, Realak garaitzen saiatuko dela hilaren 21eko partidari: "Noski, ezin du bestela izan. Gurea bezalako talde umil baten tentzat ametsa litzateke Real bezalako talde bat gaingitzea, eta haiek gaingitzen saiatuko gara. Daukagun onena zelairatuko dugu, eta Realak ere hala egitea espero dut. Partida bakarra da, gure etxean, eta Kopan ezusteak areagotu egin dira

"OYARZABAL GURE AURKAKO PARTIDAN BUELTATZEA ZELAIRA SEKULAKOA LITZATEKE"

azken urteetan. Munduko Txapelketan gertatzen ari diren ezusteko emaitzak, horren erakusle".

Realaren aurkako partida erakuslehoi ona da Coriarentzat. Urkiak dio 900 bat bazkide dituela taldeak, kopuru ona, herriak 14.000 bat biztanle dituela

aintzat hartuta: "Bazkide leialak dira, eta Realaren aurkako partida telebistan ikusiko da. Sarrekin lor dezakegun diruaz gain ikusgaitasuna emango digu, eta bazkide gehiago lor genitzake. RFEF kategoriako Bigarren Mailan gaude, bigarren denboraldia, dagoeneko. Bertan egon-

kortu nahian gabilta, eta ari gara pausoak ematen, pixkanaka".

"Oyarzabal gure aurka itzultzea nahi nuke"

Esan dugu Alberto Urkiak oso gustuko duela Imanol entrenatzailea. Jokalari kuttuna ere badu, noski: "Bai, noski. Mikel Oyarzabal da. Taldeko ikurra da, kapitaina, eta hilabete asko daramatza zelaiaetik kanpo. Niretzat, pertsonalki, eta Real leko zale gisa, sekulakoa litzateke Mikel gure aurkako partidari bueltatzea zelaira. Futbola gustuko dutenentzat ere berri pozgarria litzateke, jokalaria aparta delako. Pentsa gure taldeko jokalaria batentzat zer suposa dezakeen Oyarzabal-en aurka jokatzea; zoraturko dira!".

Lehen Maila eta maila apalagoan jokatzen duten taldeen arteko kanporaketetan zintotasun handia izan ohi da, batez ere partida bukatzen denean. Talde apalenean jokatzen duten jokalariek kamisetak eta beste

eskatzen dizkiete Lehen Mailan jokatzen duten taldeko kideei. Alberto Urkiak ere bakarren bat eskatzeko asmoa dauka: "Niretzat egun hori bizitze hutsa sekulakoa da, baina zerbait eskatuko diot jokalariren bati, edo klubari. Imanolekin, edo jokalariren batekin argazki bat egiteko aukera badut ere, konforme".

Urkiak bizitza osoa darama Corian, gustura gainera, baina amua bota diogu, Realak eskaintzaren bat egingo balio, Donostiara etortzeko, ea onartuko lukeen. Edota klubeko ordezkariaren bati bere CV-a emango ote dion, begira dezaten, badaezpada: "Jode, nola esango diet ezetz ba? Txantxetan ala? Berdin zait benjamin edo infantil mailako talderen bat gizatzea eskaintzen badidate ere". Barrez erantzun du Urkiak, baina serio jarri da, Corian eta bertako futbol taldeko entrenatzaile jardunean oso gustura dagoela ziurtatzeko: "Niregan konfiantza handia erakutsi dute, eta asko eskertzen diet hori zuzendaritzako kideei. 10 urte atzera taldeko entrenatzailea izango nintzela esan izan balidate ez nuke sinetsiko, eta klubari eskerrak eman beste aukerarik ez daukat".

Jasoa testigantza. Urkiarentzat gero eta gertuago dago bere kirol ibilbideko egunik garrantzitsuenetakoa. Hilaren 21ean Coria-Realak, Kopako bigarren kanporaketa.

ABENDUAREN 21EAN JOKATUKO DA CORIA-REALAREN ARTEKO KOPAKO PARTIDA



Urki entrenatzailea Coriako estadiokoan, prentsa agerraldian. CORIA



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urdetan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdetan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

KOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URDETAN UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Ospakizuna

Elkartearen urteurrena dela eta, pintxo-pote berezia.
19:00, *Irunberri*.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Ospakizuna

Euskaraldiaren azken ospakizuna.
18:00, *Goikoplaza*.

ANDOAIN Antzerkia

"Altsasu", La Dramatica Errante taldearen eskutik. Koxka tabernan izandako gertaera ezagunetik abiatzen da antzezlanak.
19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Erakusketa

iF Uztaritzeko artistaren eskutik, "Er(r)otaa" izenekoak.
Bastero, erakusketa aretoa.
Abenduak 2-Urtarrilak 14.

ANDOAIN Bertso-afaria

Lizaso eta Zubeldia kantari.
Afarirako txartel guztiak salduta.
20:30, *Santa Krutz Peña*.

URNIETA Euskaraldia

Tik Tokaldia lehiaketan parte hartzeko aukera.
Azken eguna.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Elkartasun eguna

Irunberri elkartearen urteurrenako ospakizunak: Kontzentrazioa Zumea plazan (12:00); Kalejira (12:30); Bazkaria (14:30); Mexikortxo (17:00); Malkogarriyak (19:00), DJ saioak (22:00).
19:00, *Bastero*.

BILBO Bertsolari txapelketa

Finalurrekoetako bigarren itzuliko azken saioa jokatu da Bilbon. Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Joanes Illarregi bertsolariantzat finalean sartzeko aukera bizia. Haiekin batera kantari ariko dira Jone Uria, Maddalen Arzallus eta Saioa Alkaiza. Saio honen ondoren erabakita geratu da finaleko partaidetza.
17:00, *ETB4n ikusgai*.



Egape dantza taldea ostiralean Andoainen ariko da.

URNIETA Euskaraldia eta Euskararen eguna

"Antxo eta Pantxa" pailazoak ariko dira, ostiralean. Eta, larunbatean kalejira ibiltaria Kantazaun eta Egape dantza taldearen parte-hartzearekin
Haur ikuskizuna: Abenduak 2, ostirala. 18:00. Kiroldedia.
Kalejira: Abenduak 3, larunbata. Eguerdian, kalez kale

IGANDEA 4

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Txokolate-jatea eta ipuin kontaketa saioa, Irunberri elkartearen urteurrenari amaiera emateko.
17:00, *Irunberri*.

URNIETA Antzerkia

"Antigone". Aktoreak: Matxalen de Pedro, Xanti Agirrezabala, Maite Aizpurua, Jon Ander Urresti.
19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Antzerkia

"Ez dok ero", desentxufatuta. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreen parte hartzearekin.
19:00, *Bastero*.

ASTEAZKENA 7

DURANGO Azoka

Durango Azokaren 57. edizioa. Liburuak, diskoak eta zuzeneko aurkezpenak dohainik.
Abenduak 7-11. Landako gunea.




Datorren Aiurri astekaria abenduaren 16an banatuko da

BITARTEAN ALBISTEAK
WEBGUNEAN

www.aiurri.eus

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****As Bestas**

Lar., 3. 19:30, 22:00.
Sintiendolo mucho
Joaquin Sabina kantaria hizpide.
Ostg, 8. 19:30.

Nire zirkua

Lar., 3. 17:00.
Astr, 6. 17:00.
Suro
Lar., 10. 19:30, 22:00.
Ig., 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.
Rabbit adademy
Lar., 10. 17:00.
Ig., 11. 17:00.



SINOPSISIA

**As Bestas**

Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen. **Gidoia:** Isabel Peña, Rodrigo Sorogoyen. **Aktoreak:** Marina Foïs, Denis Ménochet, Luis Zahera, Diego Anido, Marie Colomb, Luisa Merelas, José Manuel Fernández y Blanco. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, thrillerra, nekazal giroa. **Iraupena:** 137 min.

Adin txikiko amak, pantaila handian

Antoine eta Olga bikote frantziarra da, Galizia barnealdeko herrixka batean aspaldi bizi dena. Bizimodu lasaia dute han, baina bertakoekin duten bizikidetzaz ez

da nahiko luketen bezain idilikoa. Auzotarrekin, Anta anaiekin, izandako gatazka baten ondorioz, tentsioa hazi egingo da herrixkan, itzulerarik gabeko puntu batera iritsi arte.

Sintiendolo mucho

Zuzendaria, gidoia: Fernando Leon de Aranoa. **Partaideak:** Joaquín Sabina, Fernando Leon de Aranoa, Leiva, Antonio García de Diego, Pancho Varona. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Musika:** Leiva. **Generoa:** Musika dokumentala. **Iraupena:** 120 min.

Joaquin Sabina, zinema aretoetan

Dokumentala artista taula gainetik jaitsi eta egunerokotasunean murgiltzen denean hasten da. Hamahiru urteko filmazioaren emaitza da, eta zuzendariak Joaquín Sabinaren eszenatoki publiko eta pribatu, argitsu eta ezkutu guztiak zeharkatzen ditu. Bere bizitzaren eta lanaren gakoetatik paseatzea: mugitzen duenagatik, inspiratzen duenagatik, min ematen dionagatik.



Maider Lainez izango da PSE-EEren alkategaia

Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia alboan zuela egin zuen aurkezpena

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Elkarrekin Podemos, EH Bildu eta PSE-EE alderdiak dagoeneko 2023ko maiatzaren 28ra begira daude. Hautagaitza aurkeztu azken alderdi sozialista izan da, eta, beraz, ordezkaritza

duen lau alderdien artean EAJ-PNVk aurkeztuko duen hautagaia ezagutzea bakarrik falta da.

Ezustekorik ez zen izan eta Maider Lainez alkateak bere hautagaitza aurkeztu du. "Aukazideak ordezkatzeko" ohore

handia dela zioen, eta horrexegatik hurrengo zikloa abiatzeko gogoz dago. Erronkak badirela azpimarratu zuen: "Proiektu berriak eta ideia berriak bultzatu behar dira, eta datozen urteetan horiek errealitate izatea nahi dut". Aurkezpenean, alboan zuen Asensio Gipuzkoako buruzagia. "Lidergoa eta erabakitze gaitasuna, eta irizpide eta balio argiak dituen". Horrela definitu zuen Lainez alderdikidea. Alderdikidez inguratuta egin zuen aurkezpena.



Casa del Pueblon egin zuen aurkezpena, Andoaingo PSE-EEK. AIURRI



Kiroldegiko langileek beren haserrea adierazi zuten Udal pleno aretoan. AIURRI

Udal Kiroldegiko langileek protesta plenora eraman zuten

Hiru greba egun gauzatu dituzte kiroldegiko langileek, "bidezko lan-hitzarmen baten alde"

Erredakzioa URNIETA

Hiru greba egun: azaroaren 16a, 24a eta 29a. Hiru mobilizazio egin dituzte Urnietako kiroldegiko langileek, "lan-hitzarmen duin baten alde". Horrez gain, azken lanuztearen egun berean, udaletxean bertaratu ziren plenon beren egoeraren berri emateko. Bertan, langileez gain, hainbat herritarrek elkartasuna adierazi zieten.

Hala, galdera irekien tartean, moztu egin zuten zuzeneko emisio telematikoa. Nolanahi ere, langileen ordezkariak hitza hartzeko aukera izan zuen Ainara de Miguel EH Bilduko zerrendaburuak afera mahaigaineratu ondotik. Horren harira, ikuspuntu kontrajarriak elkar gurutzatu ziren bilkuran.

Gaur gaurkoz, egoera berean jarraitzen dutela jakinarazi dute kiroldegiko langileek, eta Bizkortzen enpresa ez da beraiekin

harremanetan jarri. Hala, aurrrera begira, jarraipena emango diete mobilizazioei. Ildo beretik, sinadura-bilketa bati ekin diote grebalariek, herritarren babesa jasotze aldera. Kiroldegian bertan dago aukera sinatzeko.

Lan-hitzarmen duina

ELA sindikatuak adierazi duenez, orotara, hamalau langilek daramate kiroldegiko gestioa eta horietatik bik, soilik dute lanaldi osoko kontratua; gainerakoak lanaldi partzialeko kontratua dute, eta "asteen, hamaika orduko lanaldia duenik ere bada". 2012. urtetik, ez soldata igoerarik, ez lan-baldintza hobirik, izoztuta. Langileek aditzera eman dutenez, duten hitzarmena "ez da sektorerako espresuki eginga dagoena. Enpresak hainbat kontzeptu ere ez dizkigu aplikatzen, adibidez antzinatasunarena".



AIURRI

Azken bonuak salgai


Gabonetako erosketa-bonuen kanpaina abiatu da Andoaingen, Udalaren eta Salkinen eskutik. Udalak azken 80 bonuak ostiral honetan banatuko ditu Salkineko egoitzan. Agustin Leitza kaleko 11. zenbakira jo behar da, bonua hartzera. Ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-20:00. 25 euroko bonua erostean, 50 euroko erosketa egin ahal izango da Andoaingo dozenaka dendetan.



AIURRI

Bertsolaritza hizpide

"Bertsolaritza, txapelketaren ikuspegitik" saioa izango da, Saroben. Datorren abenduaren 12an izango da, arratsaldeko 18:30ean hasita. Doakoa bada ere, alde aurretik izena eman beharko da Urnietako AEKn. Bertsolari Txapelketa Nagusian murgilduta eta finala jokatzeko atarian, interes handikoa da hitzaldia.



AIURRI

Aiurrik profila sortu du TikTok sare sozial ezagunean, Aiurriklik izenarekin

Informazio eta Komunikazio Teknologiaren aroan, Aiurri sare berrietara zabaltzen ari da. Hamarkada eman du Aiurrik Twitter eta Facebook sare sozialetan, eta gerora Instagramera ere zabaltzen duen bere ekimena. Horrez gain, Telegram bidez, astelehenetik ostiralera ablbis-te-sorta biltzen duen boletina zabaltzen du. Azken asteotan Aiurrik kontua zabaltu du TikTok sare sozial ezagunean. Jarraitzaile ugari ditu eskualdean, eta sare horretara egokitutako edukiak zabaltzen hasi da Aiurri. Informazioa baino gehiago, eduki multimedia laburra.

Urrian jasotako datuen arabera, Facebooken Aiurrik duen orrialdeak 3576 jarraitzaile ditu, Twitter kontuak 2556, eta Instagramen 2724. Hiru kasuetan urtez urteko igoera esponentziala izaten ari da. Telegrameko boletinerari, bestalde, 144 lagun daude izena emanda. TikTok-en garapena neurtzeko denbora beharko da.



Hitzorduz beteriko eguna izango da abenduaren 3koa. AIURRI

Abenduaren 3a, ekitaldiz betea Andoainen

Aita Larramendi ikastolak Euskararen Nazioarteko Egunean antolatu ohi duen ekitaldiarekin ez ezik, agenda bete-betea dator: La Salle Berrozperen Neguko Azoka, Bigarren eskuko azoka Zumea plazan, Elkartasun eguna, Gabon-kantak Basteron...

Hitzordu ugari, egun bakarrean



Juanita Alkain plazatik kalejira abiatuko dira, Zumea plaza aldera. IKASTOLA

Euskararen eguna, Aita Larramendi ikastolaren eskutik
Eguraldiak lagunduz gero, Juanita Alkain plazatik Zumea plazara kalejira abiatuko dira Elektropottotte eta erraldoekin batera. 12:30ean, Zumea plazan, dantzak, abestiak, talogileak eta abar.



11:00tan hasi eta 13:00ak arte zabalik izango da azoka, Goikoplazan. AIURRI

Gabon Azoka, La Salle Berrozpe ikastetxearen eskutik
Azoka solidarioa izango da. Ikasleek bildutako jostailuak eta ipuinak ikusgai jarriko dituzte. Gainera, neguko arropa eraman ahal izango da "Etxeak berotuz" izeneko postura.



Zumea plazan izango da, 10:00ak eta 14:00ak artean. AIURRI

Bigarren eskuko azoka, Udalaren eskutik
Norberak erabiltzen dituen gauzak besterentzat erabilgarriak izan daitezke. Postuetan zehar, berrerabilpena sustatu nahi da.



Malkogarriyak taldea. BASTERO

Elkartasun eguna, Irunberri elkartearen eskutik
12:00tan Kontzentrazioa egingo dute Zumea plazan, ondoren kalejira eta bazkaria elkartearen. Arratsaldean, Mexikortxo eta Malkogarriyak eta gauean DJak.



Gabon-Kanten jaialdia Basteron izango da, 12:00tan. AIURRI

Gabon kantak, Hogar Extremeñoren eskutik
Alberto Agirre Abesbatza, Tolosako Coro Flor de Jara, Lasarte-Oriako Semblante Rociero eta beste talde gehiago iragarrita daude.